

Automobil elektrikoak turistentzat

Britainia Handiko Jersey irlak indus-triarik ez du eta ingurugiroa zaintzeaz arduratzen dira. Automobilak eragiten duten poluzioa ere murriztu egin nahi dute eta horretarako Toyota etxearen automobil elektrikoak ekarri dituzte uda honetan bost hoteletara. RAV4 modeloko auto-




Artxibokoa
Britainia Handiko Jersey irlakoak ingurugiroa zaindu gura dute eta horretarako automobil elektrikoak dituzte bertako bost hoteletan turistei alokatzeko.

mobil hauek 200 kilometro autonomia dute eta eguneko alokairua 7.000 pta. (280 libera) kostatzen da, aseguru barne. Automobilak gauean hoteleko aparkalekuan kargatzen dira hamar ordutan.

Marrazoen erasoak

Marrazoek nekez erasotzen diete hondartzetan dabilen igerilariei eta gure kostaldean ho-



Munduan marrazoen erasoak urtetik urtera ugariagoak dira.

rrelokorik gertatzen denik ez dugu egunkarrietan irakurtzen. Hala ere, munduan oro har, marrazoek gero eta pertsona gehiagori erasotzen diete. 1985ean 14 pertsona izan ziren kaltetuak, baina 1995ean 62. Igoera horren arrazoiak lurralde beroetako hondartzetan turista gehiago ibiltzea izan daiteke. Gainera garatu gabeko herrietako hondartzak ez dira behar bezala zainduta egoten. Marrazoen kontrako POD (Protective Oceanic Device) izeneko sistema elektrikoak prestatu du Hego Afrikako Durban hirian marrazoak ikertzeko dagoen Natal Sharks Board erakundeko Graham Charter-ek. Proba gisa arrakastaz erabili dute urtebetez Australiako Valerie eta Ron Taylor adituek.

POD sistema igerilariek eta surfariak erabiltzeko da eta ez du inolako arriskurik. Aparatua bizkarrean eramaten da eta 12 voltetako eremu elektrikoak sortzen du. Hori aski da marrazoak

uxatzeko, hauek tentsio-aldaketekiko oso sentikorak direlako.

Beste elefante bat?

Sabanako elefantea (*Loxodonta africana* izenekoak) ez da Afrikan bizi den bakarra. Izan ere, oihaneko elefantea ere kontinente berean bizi da. Azken hau txikiagoa, meheagoa eta belarri biribildugokoa da eta nekez ikus daiteke. Gorilen antzeko dieta du (fruituak, baiak, etab.

jaten ditu) eta arrak normalean bakarrik bizi ohi dira.

Orain arte jendea ez da horretaz asko arduratu, baina Kaliforniako San Diego-ko Unibertsitateko Richar Barnes-ek ADNa analizatuta bi elefante-barietateak erabat espezie desberdinak izan daitezkeela iradoki du. Parisko Historia Naturaleko Museoko Pierre Pfeffer orde, ondorio horren kontrakoak da erabat. Ugaztunetan aditua den zientzilaria honen arabera, sabanako elefanteak eta oihanekoak elkar ernaldu eta ondorengoak izan ditzakete. Beraz, inola ere ez dago bi espezie direla esaterik. Pfeffer-ek dioenez, bi espezie direla kontsideratzeak boliaren merkaturia irekiarazi egingo luke. Izan ere, oihaneko elefantea espezie desberdintzat hartzen bada, harrapatu ahal izango da, debekuak sabanako elefantea besterik babesten ez duelako.

Sabanako eta oihaneko elefantea Afrikan bizi diren elefanteak dira. Bai, horretan ez dago zalantzarik, biak elefanteak dira. Baina R. Barnes-ek dioenez espezie desberdinak izan daitezke eta jakina, denak ez datoz horrekin bat.

